

**8.10. UDALAREN Wi-Fi BIDEZKO KOMUNIKAZIO SAREAK BALIATZEAGATIK
ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA.****KONTZEPTUA****1. artikulua**

Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 2.1.h artikuluan eta, horren haritik, 43.ean xedatutakoaren ildotik ezartzen dira "udalaren Wi-Fi bidezko komunikazio sareak baliatzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak", zein ordenantza honetan arautzen baitira.

2. artikulua

Lan, aisialdi, prestakuntza nahiz komunikazio kontuak direla eta zerbitzua erabili nahi duen normahik udalaren hariarik gabeko sareen bidez —Wi-Fi estandarra— internetera sarbidea izatea da prezio honen objektua.

Sisteman kautotutako erabiltzaileentzako interneterako sarbide gardena izango da zerbitzua, Wi-Fi konektagarritasuna duen tresneria egokia (PC, PDA) duten gasteiztarrei nahiz kanpotik etorritakoei zuzendua.

3. artikulua

Udalaren webgunean eskuragarri dagoen "Zerbitzua baliatzeko baldintza orokorrak" izeneko orria bete eta Vital Kutxak emandako TPV birtualaren bitartez finkatutako sarbide modalitateetako bat ordainduz —ordenantza honetan jasotzen den prezio taularen arabera— lortzen da zerbitzuaren erabiltzaile izaera.

ZENBATEKOA**4. artikulua**

Hauek dira galdatuko diren prezioak:

- 4 orduko konexioa, hilabeteko iraungipen epearekin 2,26 euro
- egun 1 4,49 euro
- hilabete 1 13,90 euro
- 3 hilabete 28,80 euro

ORDAINTZERA BEHARTUAK**5. artikulua**

Wi-Fi teknologiaren bidezko udalaren komunikazio sareetara sartzen direnak egongo dira behartutako prezio publikoa ordaintzera.

ORDAINTZEKO OBLIGAZIOA

6. artikulua

1. artikuluan adierazitako ustiapenerako baimena jakinarazten denean sortuko da ordaintzeko obligazioa.

Xedapen gehigarria

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

Azken xedapena

Behin betiko onespeneraren erabakia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berriaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.